



# LAUAXETA

“Lau Haize Hamaika Begirada”

Erakusketa iraunkorra  
Mungia **Torrebillela Kultur Etxean**



Lauxetari buruz inoiz egin den erakusketarik zabalena da.

Erakusketan Lauaxetaren ibilbide pertsonal, politiko eta literarioa ezagutuko da.

Euskal poesiaren berritzaile handietako baten figura hurbilagotik ezagutzeko eta 30eko hamarkadako belaunaldi garrantzitsua mugiarazi zuten indarrak ikusteko aukera paregabea.

**“Dana eman behar jako maite dan askatasunari”**

Esteban Urkiaga, Lauaxeta (1905-1937).  
Gerra aurreko poeta eta abertzalea.

## LEHEN URTEAK ETA PRESTAKUNTZA

Esteban Urkiaga, Lauaxeta ezizenez ezagutzen den poeta, Laukizen jaio zen 1905eko abuztuaren 3an.

Ume koxkor zela Mungia aldatu zuen bizilekua sendiak, “Lau Haize” izeneko zonaldera, hortik hartuko zuen poetak bere ezizena.

Loiolan eta Oñan egin zituen abadetza ikasketak eta bertan ezagutu zuen Aita Estefania. Harek zaletu zuen Lauaxeta XIX. eta XX. mendeetako literatura europarrera (sinbolistak, olerkigintza erromantikoa, modernistak).

Loiolako egonaldian ikaskide batzuekin batera Euskal Akademia izeneko taldea sortu zuen. Loiolan hasi zen Lauaxeta Euskal-izakeraz jabetzen.

## EUZKADI EGUNKARIA



Komentua utzi eta soldaduska amaitu ondoren, Lauaxeta “Euzkadi” egunkarian hasi zen lanean.

Orixeren laguntzaile modura hasi zen, baina Orixek euskerazko orrien ardura utzi zuenean, bera izendatu zuten lan horretarako eta kargu horretan jarraitu zuen gerra hasi zenera arte.

## LAUAXETAREN POESIA




1930.urtean “Maitale Kutuna” poemarekin Euskal Olerti Eguna irabazi zuen. Sari horrek bultzatuta, 1931n bere lehenengo olerki liburua argitaratu zuen: “Bide Barriak”. Lan horren bidez euskal poesiari hizkuntza berri bat eman nahi izan zion, ordura arteko erromantizismotik urruntzen zena.

Lau urteko isilaldi baten ondoren, bigarren liburua argitaratu zuen Lauaxetak; “Arrats Beran” izenekoa, non poeta egin baten trazak erakusten dituen.



# LAUAXETA

Erakusketa iraunkorra  
**Mungiako Torrebillera**  
**Kultur Etxean**



## LANGILE NEKAEZINA

Garai hauetan idatzi ez ezik, beste zeregin batzuetan murgilduta aurkitzen dugu gure poeta: mitinak ematen sutua zen eta erradikal fama zuen; langile porrokatua izanik, mila ekintzatan hartu zuen parte Lauaxetak: antzerki jaiak eratzen, ekimen politiko zein kulturalak moldatzen, Emakume Abertzale Batza indartzen, euskarazko klaseak ematen, euskarazko irratsaioak sortzen eta zabaltzen...

Lauaxetak Euskal Pizkundea taldea sortzen eta garatzen parte hartu zuen.



## GUDA GARAIA

Guda garaian zeregin guztiak utzi eta Euskal Gudarostean sartu zen Lauaxeta. 1937ko apirilaren 26an Alemaniako Condor Legioaren hegazkinak Gernika bonbardatu zuten.

Handik pare bat egunera Georges Berniard-ek "La Petit Gironde" egunkariko kazetariak, bonbardatutako herri hondatuari argazkiak ateratzeko asmoarekin Gernikara hurbildu nahi du. Lauaxeta Berniard-i laguntzera joan zen Juan Ajuriagerrak eskatuta.

Francoren tropek Gernikan bertan atxilotu zuten Lauaxeta. Gerra-kontseilua egin eta heriotza zigorra ezarri zioten. Heriotza zigor hori gauzatu bitartean idatzi zituen Lauaxetak bere olerkirik hunkigarrienak eta gutunik samurrenak, bere nortasunaren eta egoera tragikoaren adierazgarri diren berba eta olerkiak.

## INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Bisita gidatua egiteko,  
deitu ondoko telefonora  
eta egin erreserba:

Tel: 946155125  
Tel: 946155251

PREZIOA

Bisita gidatuak  
debalde dira.



## ORDUTEGIA

Asteazkena  
10:00etatik  
13:00ak arte

Larunbata  
17:00etatik  
20:00ak arte

Igandea  
11:00etatik  
14:00ak arte

Irailaren erdialdetik Ekainaren erdialdera

[lauaxetarentxokoa@astiune.com](mailto:lauaxetarentxokoa@astiune.com)